



JOKIN BILDARRATZ ▶ TOLOSAKO ALKATEA

«Urteurrenaren aitzakian, giro berezia sortzea da gure asmoa»

HELBURUA ▶ «Historia oinarri hartuta, etorkizunerako proiektuak martxan jartzeko balio izan du»

HOBEKUNTZAK ▶ «Industrian dugu egun, herria hobetzeko bidean, hutsunerik handiena» ▶ 2

TOLOSALDEA ▶

Irri artean agur esan diete festei eskualdean

Asteburua ekitaldiz beterik izan dute bost herrietan ▶ 4-5

ANOETA ▶

Isastin zabortegia ez egitea eskatuko dute hainbat ekitaldirekin

AHTk eragingo dituen «kalteen» berri emango dute gizarte eragileek ▶ 6



Ramon Beristain. I. GARCIA

RAMON BERISTAIN ▶
APAIZA

«Organoak gogoeta egiten eta errezatzen laguntzen du»

Omenaldia jasoko du igande honetan ▶ 6



NEREA LIZARTZA

Taloaren Egun jendetsu eta beroa

LEITZA ▶ Plazaola Turismo Partzuergoko antolatzaileek «arrakastatsutat» jo dute herenegun eginiko lehen edizioa ▶ 7

hitza
argazki
lehiaketa



bidali argazkiak

ARGAZKIAK NORA BIDALI

▶ P. elektronikoa: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
▶ Postaz: Argazki lehiaketa. Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza.
Araba etorb 5, atzea • 20400 TOLOSA
Nahi baduzu, argazkiak Tolosako edo Leitzako HITZaren egoitzetara ekarri

OINARRIAK: www.tolosaldeko-hitza.info



Sari nagusia

2. saria

ZOKETA APARTAK



Asteburua
Euskal
Herriko
landetxe batean

Plaza Etxeberri
jatetxean afaria



PARTE-HARTZAILE ETA BOTOEMAILA
guztien artean HITZaren mobilak eta mendiko gerriko poltsa zozkatuko dira

JOKIN BILDARRATZ ▶ TOLOSAKO ALKATEA



I. TERRADILLOS

«750. urteurrenaren aitzakian, herrian giro berezia sortzea da helburua»

Bihar beteko ditu Tolosak 750 urte hiribildu izendatu zutenetik; biharko egunaz, eta herriaren bilakaeraz eta nortasunaz mintzatu da Jokin Bildarratz

IÑIGO TERRADILLOS

750. urteurrenaren bezperan, Jokin Bildarratzekin solasean aritu da **TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA**. Egun horren esanahiaz hitz egin digu, bai alkate moduan, bai eta tolosar moduan ere.

Zer esan nahi du 750. urteurrenak?

Urteurrena aitzaki bat izan da historian oinarrituta etorkizunerako hainbat proiektu martxan jartzeko. Legatu bat utziko dugu gure ondorengo belaunaldi begira, eta hori da helburu nagusietako bat. Izan ere, etorkizunak izan behar du ardatz Tolosak duen guztia izaten jarraitzeko. Urteurrena antolatzeke, lehendabizi Fundazioa eratu genuen talde politiko guztiekin eta gizarte eragileekin, beraz, elkarren artean sorturiko ekimenak egin ditugula esan nahi du horrek. Bestalde, fase ezberdinak izan dira: hasi ginenean, orain 2

urte, sentsibilizazioan, ezagutaraztean oinarritu ginen, pixkanaka herritarrak girotzen joateko. Orain, azken fasean gaude, denek dute ezagutza urteurrenaz, eta gainera, aktiboki ari dira parte hartzen, ekitaldietara joanaz, Tolosako himnoa kantatuz eta abar. Jende asko dago guztiaren atzean, eta bereziki, Gurutze Zubeldiaren lana azpimarratu behar da.

Eta herritar moduan?

Festa, kalera ateratzea, parte-hartzea dela esango nuke, eta hori positibotzat jo behar dugu. Sentsazioa da ondo pasatzea zerbaiz desberdina egin. 750. urteurrena aitzakia izatea nahiko nuke herrian giro berezia sortzeko.

Ezker abertzalearen ustez, ospakizunerako aitzaki bezala ez omen da ulertu behar.

Nik uste dut aste hau ez dela balorazio horretan sartzeko unea, baina aurrerago sar gintezke. Agian mezuarekin ados

DI-DA BATEAN ▶

Tolosako txoko bat? Une honetan Zerkausia.

Tolosak 2 hitzetan? Zoragarria eta apasionantea.

Tolosarra izateko nolako izan behar da? Berritzailea eta ekintza zalea.

Tolosak zer du nabarmen-tzeko? Tolosa bera da desberdina.

Biharko desiorik ba al duzu? Etorkizunerako erabilgarri izan dadila ilusio guztiarekin antolatatu dugun eguna.

egonik, ez dut uste formarekin asmatu dutenik. Dena den, harritu egin naiz euren adierazpenekin bereaiek Fundazioan baitaude, eta bertan ezer ez esatea, eta kanpoan adierazpen horiek egitea harriztekoa da. Aipatu behar da, gainera, aste honetan historiaren inguruko ikuspegi ezberdinak jo-

rratuko direla hainbat hitzalditan eta guztiok izango dugula erreflexiorako aukera.

Zertan aldatu da Tolosa, eta zer mantendu du urteetan zehar?

750 urte hauen laburpena izan daiteke, Tolosak beti eduki duela protagonismoa, beti izan delako korapilo baten gunea, bertatik igaro beharra zegoelako, eta gauza askotarako gune garrantzitsua izan da. Adibide moduan, esan daiteke hiriburu ere izan zela, bere garrantzia zuelako. Une honetan ere, hori horrela da, eta modu horretan mantendu behar du.

Zertan du hobetu beharra herriari?

Hainbat hutsune izan ditugu eta aurre egin diegu. Hobetzeke geratu direnatan, industria azpimarratuko nuke. Historiako azken urteetan paperaren inguruan Tolosak protagonismoa izan du, baina orain asko galdu du, eta ez diogu horri nolabaiteko alternatiba bilatu,

TOLOSA

«Tolosak beti izan du protagonismoa, gune garrantzitsu izan delako, eta horrela mantendu behar du»

HELBURUA

«Gure ondorengo belaunaldiei begira, legatu bat utziko dugu, eta hori da helburu nagusietako bat»

URTEURRENA

«Aitzaki bezala hartu dugu Tolosak dakien bezala erantzuteko: festarekin, kantuarekin eta musikarekin»

beraz, etorkizunari begira, horretan egin behar dugu lan.

Berrikuntzen artean, Leidor eta bihar bukatuta egongo den Zerkausia aipatu behar.

Kiroldegia, Errota, Jurramendiko egoitza eta HHI helduen eskolaren eraberritzea ere aipatu behar dira, besteen artean. Eraberritze prozesu batean ari gara lanean, Tolosak protagonismoa behar duelako, eta iritzi orokorra da, herriari buelta ematen ari zaiola. Tolosa erosoago bat egiteko ari gara lanean, kalitate handiko hiria egin. Leidorren inaugurazioan, adibidez, jendea oso gustura agertu zen. Egoitza berriua estreinatuta, egitaraua oso indartsua dator, eta horrek Tolosa martxan eta mugimenduan dagoela esan nahi du. Bestalde, Zerkausiak garrantzi handia izan du historian, eta bere 3. aldaketa izanik, etorkizunari begira zerbitzu berriak eskainiko ditu.

Zer azpimarratu nahi duzu biharko egitarauan?

19:00etan izango da ekitaldi nagusia, eta horretaz gain, ikastetxeen arteko jokoak, Te-deum-a, Zerkausiaren inaugurazioa eta su artifizialak izango dira. Egun hori gogora ekarzen saiatu gara, baina gehiegi kargatu gabe, lan egun bat dela kontuan hartu baitugu. Dena den, ostirala eta larunbata etorriko dira Kepa Junkera, Berri Txarrak, Graffiti Lehiaketa, *Tolosa Kantuan* kontzertua eta tabernariek antolatatu dituzten ekitaldiekin, besteak beste. Urteurrena aitzaki hartu dugu Tolosak erantzuten duen bezala erantzuteko, festarekin, kantuarekin eta musikarekin, adin guztiatarako jendearentzat beti ere.

ZABALA DESGUAZEA

- Plan Prebererako zertifikatuak egiten ditugu.
- Txatarrerako kotxeak biltzen ditugu.

Tel./Faxa: 943 67 17 90 • 696 593 347
Beotibar Industriegunea, 18 • BELAUNTZA

iragarki laburrak ▶

LAN HEZKUNTZA

Gidariak. Plaza libreak betetzeko behar dira: Eusko Jaurilarizan, Udaletxean eta Erakunde

Publikoetan. 943313782.

Harreragileak -Administrari laguntzaileak. behar dira Erakunde Publikoetan. 943313782.

HISTORIA ▶

‘Esperientziak’ lanak «lehena, oraina eta geroa lotzen ditu»

Tolosaldeko 18 adinekoen testigantzak, eta eskualdeko familien 9.000 argazki bildu dituzte proiektu honetan



Esperientziak proiektuaren aurkezpenean, atzo. E. EZEIZA

ESTI EZEIZA

Tolosaldean ia bizitza osoa igarotzen duten 70 urtez gorako 18 adinekoen testigantzak bildu ditu *Esperientziak* proiektuak. Honez gain, 2005eko urritik abendura bitartean, Tolosako familien 9.000 argazki baino gehiago digitalizatu dituzte. Hau guztia 750. urteurrenarako antolatuta diren jardueren esparruan sartu dute. Eta material guztia Tolosako Udal Artxiboan dago jasota. Hala, proiektu honen zati bat ikusgarri izango da datorren egunetan.

Jokin Bildarratz Tolosako alkatearen esanetan, 750. urteurrenaren ospakizunen helburuetako bat, ondorengoentzat zerbaitea uztea da, «eta *Esperientziak* proiektuak, lehena, oraina eta geroa ongi lotzen ditu». Bestalde, proiektu hau doku-

mentu grafiko bat da eta esanahi ezberdin bat ematen dio artxiboari, «orain arte artxibotaz irudi zurrin eta itxia izan baitugu, eta honekin berriz, ikuspegi irekiagoa eta garde-nagoa ematen diogu».

Proiektuaren gauzapena

Esperientziak proiektuaren koordinazioaz eta zuzendaritzaz Okupgraf arduratu da. Ekoizpena berriz, Tolosa 750 Fundazioak eta Artelekuk egin dute, Gipuzkoako Artxibo Orokorren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin. Hala, proiektu honen berri eman zuten atzo, Iñigo Royo eta Marian Larzabal, Okupgrafeko ordezkariak, Jokin Bildarratz, Tolosako alkateak, eta Foru Aldundiko Kultura zuzendari den Imanol Agotek.

Iñigo Royok azaldu zuenez,

orain dela urte eta erdi inguru planteatu zuten «proiektu simple», baina aldi berean, «beharrezko» hau, «gure artean pertsona ugari baitaude Gipuzkoaren historiaren lekuko direnak, eta oraindik, oroimenean oso gertu daukatena». Lan honetarako, ez dira gertae- rian handietan zentratu, historia txikietan baizik. Denera, 50 pertsona elkarrizketatu dituzte Gipuzkoan, Edurne Ormazabal arduratu delarik hortaz.

Protagonisten aukeraketa egiteko garaian, berriz, kultura eta bizimodu ezberdinetako jendearen testigantzak biltzen saiatu dira. Hala ere, hizkuntza eta sexuari dagokionez, «zoz- ritz», kopuruak orekatuta gertatu dira. Bestetik, proiektuaren arduradunek garbi utzi nahi izan dute, lan honekin ez zutela ondorio soziologikorik atera nahi. «Jendearen bizitzako zat- iak ateratzea eta erakustea zen helburu, besterik ez».

Proiektua hasi eta berehala Tolosako 750 Fundazioak Okupgraf eta Artelekuren arteko ekimenarekin bat egin zuen eta Tolosaldeko 18 pertsonari 13 elkarrizketa egiteko bidea ireki zuen. Eskualdean eginda- ko *Esperientziak* proiektuaren zati hori da, hain zuzen ere, orain Tolosan aurkeztu eta era- kutsiko dena.

Elkarrizketak egiteko ga- raiari, ahalik eta traste gutxien erabiltzen saiatu zirela jakina-

EGITARAUA ▶
ARANBURU JAUREGIA

▶ Bihar, 12:00etan inaugurazio ekitaldia egin ondoren. Proiektuaren erakusketa ikusgai egongo da azaroaren 11rarte.

KARTELAK

▶ Tolosako dendetan eta leku publikoetan hainbat kartel banatu dituzte.

TRIANGULO PLAZA

▶ Hil honen 13an, gaueko 10etan, *Esperientziak* proiektua egitekoan bildutako materiala aurkeztuko dute. Alos Quartet taldea ere bertan izango da.

▶ Bestalde, Arantxa Iturbek bere Emakumeen Ahotsak obratik ateratako hainbat pasarte antzetzuko dituzte, Elena Aranbarrik eta Irantzu Mantxok.

▶ Amaitzeko, Tolosaldeko pertsonekin agindako elkarrizketatik aukeraturako zatiez osatutako bideoa proiektatuko dute. Hori laguntzeko, Tolosako historiaren argazki aukeraketa baten proiektioa ere izango da.

KULTUR ETXEA

▶ Hil honen 13tik azaroaren 11ra arte, lehiotan, XX. mendean Tolosan bizi izan diren pertsonen argazkiak ikusteko aukera izango da.

GIPUZKOAKO ARTXIBO OROKORRA

▶ Tolosaldeko pertsonen egindako elkarrizketen laburpen bat proiektatuko da.

razi zuten atzoko prentsaurrekoan, adinekoen etxeak eta gehiegi ez aztoratzeko. Bestalde, hizketaldietan elkarrizketak nahi beste luzatu baziren ere, erakusketarako, hauen laburpen bat egin dute.

KULTURA ▶

Euskara ikasteko klaseak atzerritarrentzat

Euskara indartzeko eskolatan izena emateko epea irekita dago. Datorren ikasturtean ere, bertan parte hartu ahal izango dute atzerritarrek, eta kanpotarren seme-alaba direnek. Informazio gehiago nahi duenak, deitu dezala 678 63 83 94 telefono zenbakira.

KULTURA ▶

15 urtetik gorako gazteak behar ditu Udaberrik

Ikasturtea hasi da, eta honekin batera, Udaberri dantza taldeak ere hasi ditu entseguak. Orain, dantza taldeak 15 urtetik gorako neska-mutilak behar ditu dantza talde- rako. Interesaturia dagoenak edo informazio gehiago nahi duenak dei dezala 699 02 66 18 zenbakira, edo bere egoi- tzara hurbildu.

TELEFONOAK ▶
Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212

▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua:

683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibarraldea.** Osasun ebea:

672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzion klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdia)

▶ **DYA:** 672536

▶ **Gurutze Gorria:** 674888

▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970

▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzaran autob.: 948 221015

▶ **Taxia:** 670420

▶ **Taxia (Leitza):** 608 873016

Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675888

▶ **Tolargi:** 650016

▶ **Iurramendi egoitza:** 670325

▶ Tolosa gasa: 675320

KULTURA ▶



Bi kultura musika bidez elkartz

E. Ezeiza ▶ Aoi Tori abesbatza japoniarra etorri zen igandean Tolosara, Hodeiertzekin batera kontzertu bat eskaintzeko. Hala, jende ugari bildu zen San Frantzisko elizan, eta japoniar neska hauen ahotsekin gozatu ahal izan zuten. Ekitaldiaren amaieran bi abesbatzek batera kantatu zuten. NEREA LIZARTZA

JAIAK ▶

Azken agurra herriko jaiet

Hasten den jai oro bukatu egiten omen da, eta horixe gertatu da Tolosaldean ere; Alkizako, Bedaiko, Elduango, Lizartzako eta Zizurkilgo jaiak amaierara iritsi dira, ezti zaporea uzten hasiak zirenean

NEREA URBIZU - MADDI SOROA

Jaiak gozatzeko hasi bezain pronto bukatzen dira. Gero ona eta ikuskizuna izan dira nagusi Lizartzako, Elduango, Alkizako, Zizurkilgo eta Bedaiko festetako azken egunean ere. Herri kirolak, bazkariak, haurrek ondo pasatzeko hamaka arazoak, alegia.



Lizartza. Herriarrek jaiak oso ondo joan direla aitortu dute, nahiz eta Udalarekin arazoak izan. Haurrek berdina esan dezakete: haien zentzuetan parte hartzeak gain, asko gozatu baitzuten. NEREA URBIZU

ko azken egunari. Ondoren, potoien artzuz, herri bazkariari emian zioten lehiaketa. Oso arrakastatsua izan zen, izan ere, berrogei lagunetik gora bildu zen mahaiaren bueltan. Sotesirako herri kirolen ikuskizunarekin ondo pasatzeko aukera izan zuten lasterak. Lizartza eta Isarrako lasterak izan ziren herri kirolen saioa burutu zutenak. Harri-jasotzea, trontza mozketa, koskoi-epuraketa, arrain estatikoak eta sega mozketak berezia —batek segarekin koskoiak mairaren alde batera bota eta besteak eskualdearenkin aztera bueltatu— izan ziren jokalariek egin beharrek. Guztira, hiru buelta-egin behar izan zituzten kirolariak. Herriarrek adierazi dutenaren arabera, oso ikuskizun politak eskaini zuten eta jendek oso gusturaz geratu zen ikuskizunarekin.

Festien zatirik gozagarriena, ordea, gausan izan zen, erdiuarekin elkartu baitziren herriarrek parrandan ondo pasatzeko. «Poziko agertu dira herriarrek jaien balantzea egitekoan, eherran dugun egoera duguna den arren, herriarren parte-hartzea handia izan delako».

Zizurkilgo azken bukatu ziren

Zizurkilgo jaiak azken bukatu ziren, eta, irailako lehen tantak bota baitzuten ere, euriak ez zuten jaiak zapuztu. Joxe Agirre plazan urteroko Lore Lehiaketa izan zen. Bertan, zortzi izan ziren parte-hartzaileak, zein baina zen landare ederagoekin.

Aurten goan, Kristina Arin izan da irabazlea. Bigarren postuan Jose Inazio Yarza eta Hirugarren, aldiz, Irigo Arin. Saria denek jaso zuten hala ere, eta zein sari aproposoa lortzeko baina. Eramu kolore-



Elduain. Mikel - Eola, Ainarik - Jai Gomez, Barberio VI - Atuna, eta Bengoetza VII - Arretxe pilotari profesionalen partida ikusi ahal izan zen herriko frontoan. NEREA URBIZU

ABURUZA Fralkuntzak, S.A.

ALEGIO ZAHARREN EGOITZA EDARITEGIA



Alkiza. Frontoa igandean ere bete da egon zen. Pilota partidek indarra izan zuten, astoen karrerarekin batera. Izan ere, 10 partaide zeuden astoekin. N. URBIZU

tsuak eraman zituzten zortzi parte-hartzaileek.

La ordu berean jubilatuek antolatutako toka eta jela jokatu izan ziren. Han ere izan ziren animatu batzuk jolasen.

Eta aurten go jaiet amatera berrituko emateko, Ruper Ordoika aritu zen luntzean, Joxe Arregi plazan.

Bedaiko igandean egin zuten herri kirol saioa eta zortzi-

dularitza jokatu baitziren bertan. Arratsalde partean, asto karrerak eman zion jarraitzaileei. Guztira hamar lagun izan ziren parte hartu zutenak, baina garapena Ariz San Sebastianek eta Asier Saralegik eskuratu zuten. Pentak emateko Iker Goenagak kon-

zertua eskaini zuen. Ondoren, Inuntzo eta Belzikoren erroretan izan zen.

Alkizako pilotalekuan jendek bete zen igandeko egardian, pi-



Zizurkil. Joxe Agirre plazan Lore Lehiaketa egin zuten. 8 parte-hartzaile izan ziren. Irudian, mabazka, Kristina Arin garbia, aurrean saria duela eta atzean garapena eman dien landarea. N. URBIZU

Omenaldi bero eta hurbila Juan Manuel Erasuni



Bedaiko pilotalekuan jende asko bildu zen, herenegun, Erasuniri eginko omenaldian. NEREA URBIZU

N. Urbizu ▶ Juan Manuel Erasun szezoiari eta segolariak goi mailako lehia izan duela eta, omenaldia egin zioten, berrogei lagun, Bedaiko, jende asko hurbildu zen, omenaldi bero honen lekuko izateko. Hogei urteren ondoren bere ibilbide luzea alde batera utzirik, jarraitzaile askok haren kirol garai goraitu nahi izan zuten.

Herri kirolletan Arrospeide eta Anzumendi szezoiariak eta Ainar Irigoien harria jasotzen izan ziren. Orduan iritsi zen une ederra: Irigoienek, 100 loko hartia gainean hartuta Erasunengana hurbildu eta eskua luzatuz, hari eskaini zion albatza.

Jon Balerdik eta Garazi Jaurregi ere Agurra dantza eskaini zioten kirolariari. Ondoren,

herriko bertsoariaren Jon Beldarrainek 3 bertso eskaini zituen, alde batek Erasuniri berrari, eta besteak, Joxe Mari Zuhaitza Poxkualterorri Erasunin prestatutako izandakoari.

Poxkualterok eta Erasunek garaikurrak ere jaso zituzten bertso banarekin, momentu hulezkortu nahian. Hala, berrari, Esanlekoek luzaialako kamietan baina eta beste garaikurrak ere jaso zuten bi kirolariak.

Ondoren, Inzurruko dantza zuten, hau ere szezoiari eta segolariari eskaini. Bukarera, Erasunek eta Poxkualterorri eskerrak eman zituzten buketan, baina Beldo herriari, bai eta bertaratutako zuzentzaile ere. Erasunek ez du erraz ahalazuko egon bazu. ◀

Irargari laburrak ▶

Ametzeta, Bedaizta, Gabiria, Herrialdia, Ibarra, Vilabona, Zizurkil. Hainbat ebe bifamilar, azokatu eta erakitzeko partidak.

Alegio Zaharren Egoitza Edaritegia. Alegio plaza • Tel.: 943 65 58 00

Alegio Zaharren Egoitza Edaritegia. Alegio plaza • Tel.: 943 65 58 00

Alegio Zaharren Egoitza Edaritegia. Alegio plaza • Tel.: 943 65 58 00

RAMON BERISTAIN ▶ APAIZA

«Organoak gogoeta egiten eta erreztatzen laguntzen du»

Omenaldia jasoko du igandean Ramon Beristain pouldarrak, Villabonan lehen meza eman zuela 50 urte betetzean

IMANOL GARCIA

Ramon Beristain (1931, Villabona) pouldarrari omenaldia egingo diote igande honetan, 50 urte pasatu baitira Villabonan lehenengo meza eman zuenetik. Ehundik gora lagun bilduko dira Amasako Arantzabi jatetxean egingo duten bazkarian. Mahai inguruan eseri aurretik, 12:00etan hasita, meza ospakizuna eta kontzertua egingo dituzte.

Zer oroitzapen duzu herrian emandako lehen mezaz?

Ospakizun garrantzitsua izan zen, herriko apaiz guztiez lagunduta, eta koruak eta organoak armonazitua. Honez gain, familiakoak eta herritar ugari izan ziren.

Nola hautatu zenuen apaiz izatearena?

Pauldarrek Villabonan eman zituzten misio batzuk direla eta, baina dagoeneko apaiz egitearen nahia nere barruan sentitzen nuen. Pauldarrek Iruñean zuten apaizgaitegira joan nintzen.

Zein izan da zure ibilbidea apaiz bezala?

24 urterekin apaiz izendatu ninduten eta Londonera bidali. Gero Barakaldora bidali ninduten, eta elizan eta eskolan jardun nuen. Hortik Sevillara eta A Coruña. Ondoren Murgia bidali ninduten. Leku hauek guztietan apaiz-zerbitzua eta organoa uztartu nituen. Azkenean Villabonara etorri nintzen. 39 urte daramatzat hemen, apaiz eta organista bezala zerbitzatuz.



I. GARCIA

Nola hasi zinen organoa jotzen?

Bilbon piano ikasten hasi nintzen eta bertan pianoko ikasketak amaitu nituen. Organoa erekin berdina egin nuen Madril. Apaiz egin ondoren osatu nituen bi instrumentuen ikasketak. Apaizgaitegiko ospakizunetan jotzen nuen organoa eta gero organo-jole lanetan aritu naiz egon naizen lekuetan.

Gaur egun jarraitzen duzu organoa jotzen?

Oraindik organoarekin entse-

guak egiten eta jotzen aritzen naiz.

Zer suposatzen du organoak meza baterako?

Bizi asko ematen dio zeremoniari eta abestiei laguntzeko baliagarria da. Gogoeta egiten eta erreztatzen laguntzen du.

Omenaldia egingo dizute igandean. Nola sentitzen zara?

Hunkituta nago eta oso pozik omenaldi honekin. Joxean parrokoari eta nire ondoan izango den herriari eskerrak eman behar dizkiot.

ANOETA ▶ AHT

Isastin zabortegia ez egitea eskatuko dute

AHTren aurkako protestaldia burutuko dute herriko gizarte eragileek asteburuan

ERREDAKZIOA

AHT gelditu, Isastin zabortegirik ez! lelopean Anoetako gizarte eragileek informazio eta protesta ekitaldiak burutuko dituzte asteburu honetan. «Abiadura Handiko Trenaren proiektua Anoetan inoiz proiektaturiko obra erraldoi eta beldugarriena da, bere aurrekontu eta dimentsioek adierazten duten bezala», diote antolatzaileek. Trazatuaren dimentsioak ez ezik, ondorioz sortuko liratekeen zabortegia ere aipatzen dute: «Anoetan bi izango lirateke: bat Isasti mendia estaliz eraikiko luketeena eta bestea Barrundi, Katategi eta San Juan base-riren gaikaldekoa». Asteburu honetan «Isastin kaltetuko den gunea ezagutu eta bertatik AHT berehala gelditzeko aldarrikatuko dugu».

Ekitaldi hauekin, bide batez «Eusko Jaularitzaren eta EAJ-EA-aren Anoetako Udala gogor salatu nahi ditugu: bat, proiektu honen inguruko informaziorik ematen ez dutelako; bi, herri-tarren iritzia aintzat hartu nahi ez dutelako; eta hiru, erabakitzeko eskubidea jendarteari aitortzen ez diotelako. Benetan inolaz ere ez ditugu zuzendari politiko hauek behar».

Antolatzaileek «AHTren inposizioaren aurka, anoeta-rron ondare naturalaren eta ongizatearen defentsan mobilizatzeko deia luzatu nahi die herriar guztiei, gure esku baitago eraso larri hau geldia

EGITARAUA ▶

IRAILAK 15, OSTIRALA

17:30. Ekintza informatiboa: mendi marxa plazatik Isastira. Panel informatiboak jartzea.

21:00. Afari-merienda estalpean. Ondoren, kafe tertulia. Gaia: AHTren aurkako erresistentzia.

IRAILAK 16, LARUNBATA

11:00. VI. Herriko Baseritar eta Artisauen Azoka. Herriko barazki, fruitu, abereen erakusketa, txalapartariak, trikitilariak...

12:00. Herri kirolak herriko zahar eta gazteen eskutik.

14:00. Paellada herrikoia estalpean. Txartelak, 10 eurotan, Itzuli tabernan eskuratu daitezke. Ondoren, txela txapelketa

18:00. Erromeria herriko trikitilariekin.

IRAILAK 17, IGANDEA

09:00. Aldarrikapen marxa, plazatik Ernio mendira.

raztea». Ekitaldiak ostiralean hasi eta igandera arte egingo dira. Ostirala eta larunbata gauean Isasti mendian akanpatzeko aukera dago. Antolatzaileek zehaztu dutenez, akanpatu nahi duenak kanpin denda eta lo zakua eraman beharko ditu. Antolakuntza arduratuko da gosari eta aforietaz eta bertan ordainduko dira.

BELAUNTZA-OREXA ▶

Tutorearen bisita jasoko dute KZguneetan

Tutorearen bisita jasoko dute Belauntzako eta Orexa-ko KZguneetan datozen egunetan. Belauntzan bihar izango da. 09:00etatik 13:00etara egongo da eta tarte horretan bi orduko mintegia emango du, 10:00etatik 12:00etara, hain zuzen. Outlook Express programari buruzko informazioa emango du mintegi horretan. Orexan, berri, etzi izango da tutorea eta arratsaldean egingo du bisita KZgunera.

ANOETA ▶

Memoria lantzeko ikastaroa Alkartasun

Alkartasuna Biltokian memoria lantzeko ikastaroa egingo dute. HHTik emango dute ikastaroa eta izena emateko epea irekita dago. Hilaren 19an izango da lehenengo eguna. Asteartetan, 14:30etik 16:30era izango da ikastaroaren ordutegia. Izena emateko 943 67 26 60 telefonora deitu (10:00-13:00 eta 16:30-18:00) edo Alkartasunaren egoitzara joan daitezke (18:00-20:30). Nortasun agiri beharrezkoa da.

iragarki laburrak ▶

LANA

Zerbitzaria. Zerbitzaria behar da Tolosaldeko taberna baterako. Lanegun osorako. Interesatuak deitu 677 32 99 34 telefono zenbakira.

Tabernaria. Asteburuetan tabernan lan egiteko pertsona behar da. 615 78 90 06.

Tabernaria. Neska euskalduna behar da 4 orduz lan egiteko, Tolosaldean. Eskarmentatua. 635 74 52 91.

Ileapaindegia. Eskarmentudun langilea behar da ileapaindegirako. 625 70 50 59.

SALGAI

Furgoneta. Furgoneta salgai. California 2,5 TDI.Extrak. 50.000 km. 2003koa. Interesatuak deitu 685 75 17 43.

Pago enborra. Tximenetako zaitututa dagoen pago enbor lehorra salgai. Deitu 646 53 71 15 telefono zenbakira.

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Eztabaida. Azken urteetan eskola eta ikastetxeetan izan diren bullying kasu gutxi batzuk ezagutzera eman dira. Lehen bezainbeste ematen dira? Zergatik gertatzen da? Gure gurasoek jasaten zutenean bezalako erasoak dira? Non egon daiteke irtenbidea? Errudunik badago?

LEITZA ▶ KULTURA

JAIONE ASTIBIA

«Arrakastatsua; jendetsua; ongi», halako deskribapen hitz baikorrak egin zituzten, herenegun bertan, lehendabiziko aldiz egin zuten Taloaren Egunaren bat-bateko balorazioa egiterakoan, festa egunaren antolatzaile zen Plazaola Turismo Partzuergoaren ordezkariak. Pozik zeuden, eta «ezustekoa» hartuta ere bai, aurreneko aldia izaki, ez baitzuten halakorik espero. «Halako berroarekin gainera, harrituta gaude jendeak taloa, bero-beroa, zeinen gustura jaten duen. Beldur ginen, antolakuntza aldetik nola ibiliko ginen eta jendeak nola erantzuten ote zuten ere bai, asmatuko ote zen edo ez, baina oso ongi ateratu da», adierazi zioten TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZARI.

Izan ere, halaxe suertatu zen igandea, eguzkitsua eta sargoria; baina herrian bertako jendea ez ezik, taloak eta kirol saioak erakarrirako kanpoko bisitariak ere etorri ziren: plaza beteta zegoen eguerdi-eguerdian. Eta gehientsuenek dastatu izanen zuten billabonatarekin, saralegitarrak, nahiz Talotegikoek eskainitako taloa; ohiko betegarriekin jateko prest, nahiz enbasatutako talo eta talo pizzak ere.

Herriko Arakindegia, Landa, Irujo, Musunzar, Sagasti, Txoko eta Gaztañaga ostalariek egun honetarako asmatutako talozko platerak ikusgai egon ziren Karrapean, edozeinen gose-belarra asetzeko moduan: talozko hostoreak, talozopak, ondozko taloak, postre gozoak... Goxoak!

Eta noski, taloaren lehengaita artoa izaki, labore hori lantzeko nekazal tresnen erakusketa ere ikusgai izan zen: kostarea, bostortza, ereiteko makina, artoa jalkitzeko artapurtea... Eta gailu haiek tiratzeko beharrezko abereak ere ekarri zituzten plazara, kartolekin jantzitako astoa edota, haurren gozagarrri, herrian barrena ibilalditxoa egiteko prestatutako zalgurdia. Taloak egiteko aukera ere izan zuten tikienek.

Aurreneko Taloaren Eguna beroa bezain jendetsua

Eguzkiak gogoz jotzen zuelarik, herriko plaza taloaren erakustoki bihurtu zen



Taloak egiteko, artirinaz egindako oreka fin prestatu behar da; gero zabaldu eta erre. Gai guztiak bukatu zituzten igandean. N. LIZARTZA



Batzuk lanean, besteak jaten, eta besteak... arre! NEREA LIZARTZA

Nafarroako Herriz Herrikoan finalistak erabakita daude

Nafarroako Herriz Herri Txapelketak, herri kirol desberdinetako nahastez osatutakoa, baditu finalerako taldeak. Izan ere, herenegun Taloaren Egunaren baitan, plaza bete ikusleren aurrean eta zaletuen animo oihuen artean Leitzan jokatu zuten laugarren eta azken jardunaldia. Berriozar, Garralda eta Ultzama sailkatu ziren, heldu den larunbatean Lantzen jokatu duten finalerako.

Hiru finalista horiez gain, Igantzi eta Gure Txokoa talde-

ek ere parte hartu dute lehian, launaka; igandean berriozarretarako zuten atsedean eguna. Bi tandatan jokatu dute txapelketa, bi konbinadatan. Lantzerako finalera joanen diren taldeak aurreneko konbinadakoak dira; hots, soskor biltzea, zakua, aizkora, lasterka eta tronza biltzen dituen herri kirol nahastekoak. Konbinada honetan jokatu dituzten lau saioetan, lortutako bi denbora hoberekin baturak erabaki ditu finalistak.

Bigarren konbinada, berriz,



Soskor botatzen bi leitzar. N. L.

ligaska modura egiten ari dira eta azken egun horretako denborak ere aintzat hartuko dituzte txapelketa erabakitzeko tenorean. Harri-jasotzea, txingak eta ingudea biltzen dituen honetan, oraingoz Igantziko taldea da denborarik hoberekin jabe, 2 minutu, 33 segundo eta 9 ehunekin; Garralda dago hurrengo, 22 segundotara.

Leitzan, Garraldak irabazi zuten lehen konbinadan, Igantziren aurretik; 2 ean, gauzak alderantziz gertatu ziren. ◀



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Tel.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.nfo



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Anoeta. Alkartasuna biltokian memoria lantzeko ikastaroa egingo dute. Hilaren 19an hasiko da, astearteetan. Izen-ematea biltokian bertan edo 943 67 26 60 telefono zenbakian.

Anoeta. AHTren aurka egingo dituzten ekitaldien baitan, larunbat honetan, hilaren 16an, 14:00etan, paellada herrikoa egingo dute. Txartelak salgai, 10 euroren truke, Itzuli tabernan.

Belauntza. Bihar, *Outlook Express* mintegia izango da KZgunean, 10:00etatik 12:00etara.

Tolosa. Udaberri dantza taldeak 15 urte gorako neska-mutilak behar ditu. Interesatuak deitu 680 682 560 telefono zenbakira.

Tolosa. La Jara elkarteak irteera antolatu du, Pilarikako zubirako, Extremadurako hainbat leku bisitatuz. Alojamentua 3 izarretako hoteletan. Prezioa: 195 euro. Informazioa: 675 707619.

Tolosa. Tolosa 750 jardunaldiak jardunaldien baitan, Nafarroa versus Gaztela hitzaldia, Julio Valdeon eta Aitor Pescador hizlariekin. 20:00etan, Kultur Etxean.

Tolosa. Datorren urteko egutegia egiteko Argazki lehiaketa. Gaia: *Nola ikusten duzu Tolosa?* Lanak entrega daitezke, paperean edo digitalean, Tolargin edo Tolosagasan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Leitza. Plaza, M. Elbarren, 36. 112.
Tolosa. Bronte, C. Korreo kalea, 20.
943 67 60 13.

IRRATIA

Txolarre irratiak (107.5, 101.2 FM)

11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZaren errepassoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
18:00-19:00. *Adi Guri* irratsaioa, Anoeta Herri Ikastolako DBHko 1. eta 2. mailako ikasleen saioa.
21:00-22:00. *Zaharrak berri*.
22:00-23:00. *Street*.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta irizien erantzukizunik.

Itsasoko uretatik

HITZA ARGAZKI LEHIAKETA ▶ Hondartzatik hondartzara ibili dira HITZAko irakurleak udan; Juan Ugartemendia eta Amaia Jauregi dira horren adibide



'ISLATIK' ▶

Juan Ugartemendia (Anoeta).

Espainiako iparraldeko kostan izan da Anoetako Juan Ugartemendia aurtengo udan. Hala, Kantabriako Isla herria bisitatu du. «Oso herri polita da Isla eta argazki hau goizean atera nuen», azaldu dio Juaneke HITZARI.

'CAÑOS DE MECA' ▶

Amaia Jauregi Carrera (Tolosa).

Amaia Jauregi Andaluzian (Espainia) izan da udan eta hauxe kontatu digu: «Argazki hau aste honetan Cadizeko kostaldean ateratako argazkia da. Zoragarriak dira bertako hondartzak luzeak, hondar txurikoak eta ur garbiak. Argazki hau, hain zuzen ere, Caños de Meca herrian ateratakoa da, eta bertan, besteak beste, Faro de Trafalgar ezaguna dago».



AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Maria Mujika (Amezketza). Abuztuaren 10ean 90 urte eragin zituen. Zorionak denon partetik, batez ere Irene eta Ainhoa.



URTE ASKOAN

Oier Saldias (Anoeta). Zorionak eta muxu asko zure 5. urtebetetzean.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZaren egoitza TOLOSAN Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZaren egoitza LEITZAN Udaletxeko bulegoa

hitza
agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...